



DPA-EUROPA PRESS



IKUSMIRA

ETENIK EZ DUEN BIOLENTZIAREN SOKAN LOTUTA

Azken urtean, Haitiko talde armatuek errekrutatzen dituzten adin txikikoen kopurua %70 igo da, Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsaren (UNICEFen) datuen arabera. Aurrekaririk gabeko igoera horren atzean pobrezia orokortua, biolentziaren gorakada, hezkuntza falta eta azpiegitura eta gizarte zerbitzu guztien kolapsoa dago. Talde armatuek haien familiei laguntza ematearen truke taldean sartzeko presionatzen dituzte haurrak. Beste kasu batzuetan zuzenean mehatxatzen dituzte. Talde armatutik ateratzea erabakitzen badute edo sartzeari uko egiten badiote, haien segurtasuna arriskuan jartzen dute. Soilik hiriburuan, 1,2 haur bizi dira biolentzia armatuaren mehatxupean. Testuinguru honetan, sexu erasoak eta bortxaketak ere areagotu dira. UNICEFeko zuzendari exekutiboak, Catherine Russellek, ohartarazi duenez, «bukatzeko ez den soka» batean sartuta daude. «Joera hau irauli egin behar da. Alde guztiek txikiak segurtasuna eta ongizatea bermatzeko konpromisoa hartu beharko lukete». Jada 700.000 dira barne desplazatuak. Soilik hamar egunetan, 41.000 pertsonak ihes egin behar izan dute beraiei bizilekuetatik, biolentzia dela eta. Ainara LERTXUNDI